

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Behin betiko onespina ematea Gasteizko espazio publikoan ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak erakusgai jarri eta saltzea arautzeko ordenantzaren aldakuntzari

2018ko urriaren 22an egindako osoko bilkuran eman zion hasierako onespina Gasteizko espazio publikoan ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak erakusgai jarri eta saltzea arautzeko ordenantzari. Ez zenez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, erabakia behin betikotzat jo zen 2018ko abenduaren 21ean, eta, horrenbestez, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 24an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

Eranskina

Gasteizko espazio publikoan ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak erakusgai jarri eta saltzea arautzeko ordenantza

Zioen adierazpena

Aski maiz suertatu ohi da, Gasteizko udalerriko zenbait lekutan, nor edo nork espazio publiko baliatzea ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak ikusgai jarri eta saltzeko. Horrenbestez, udal espazio publikoan egiten diren jarduera horiek arautuko dira ordenantza honen bitartez, erabilera-arauak eta baimenen eta arau-hausteen erregimena finkatuz.

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

Gasteizko udalerriko espazio publikoan ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak erakusgai jarri eta saltzea arautzea du xede ordenantza honek.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

a) Ibilgailuak saltzeko establezimenduak.

Ibilgailuak saltzeko establezimenduek lizentzia beharko dute —edo jarduera burutzeko aurretiko komunikazioa egin izan—, zeinek bere baitan hartu beharko baitu ibilgailuen salmenta, eta salerosketa-eragiketak oro merkataritza-establezimenduan egin beharko dira. Beraz, debekatuta egongo da merkataritza-establezimendu iraunkorrek ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak beren esparrutik kanpo, hots, bide publikoan edo erabilera edo jabari publikoko espazioetan, erakusgai jarri edo saltzea. Debeku hori urratuz gero, Udaltzaingoak errekerimendu formala egingo du ibilgailuak establezimenduaren barrura sar daitezen —arau-haustea berekin lekeen zigor ekonomikoa gorabehera—, eta, errekerimendua aintzat hartu ez eta arau-haustea errepikatuz gero, berriz, ibilgailuak kaletik kendu eta udal biltegira eramango ditu.

b) Partikularren salmenta.

Partikular gisa eta modu bakan eta puntualean ibilgailu motordun bat nahiz ziklomotor bat saltzeko —ibilgailuan bertan iragarkia jarrita—, udal baimena eskuratu beharko du aldez aurretik haren titularrak, hots, zirkulazio baimenean halakotzat identifikatuta dagoenak, baldin eta bide publikoan edo erabilera eta jabari publikoko espazioetan iragarri nahi badu, aurrerago egiten diren zehaztapen gorabehera.

c) Ibilgailu motordunaren eta ziklomotorraren definizioa.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskineko 12. eta 9. puntuetan adierazten direnak joko dira ibilgailu motordun eta ziklomotortzat, hurrenez hurren. Aurrerantzean, ordenantza honetan, "ibilgailu" hitzak barne hartuko ditu.

3. artikulua. Baimenaren baldintza orokorrak

1. Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-koa edo hortik beherakoa duten ibilgailuak saltzeko bakarrik emango da baimena.

2. Saldu nahi den ibilgailuak ezingo du egon baja-egoeran Trafikoko Ibilgailuen Erregistroan. Gainera, titularrak ordainduta eduki beharko ditu udal zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak, eta nahitaezko aseguruia indarrean, baita ibilgailuaren aldiaren aldiko azterketa teknikoa (IAT) ere.

3. Titular bakoitzeko salmenta baimen bakarra emango da, eta debekatuta egongo da besteri lagatzea. Hiru hilabeteko balioa izango du baimen horrek, eta beste hiru hilabetez luzatzeko aukera izango da, ibilgailuaren titularrak hala eskatuz gero. Baimena aldi laburragorako ere izan ahalko da, ibilgailuaren azterketa teknikoaren (IAT) edo ibilgailuaren nahitaezko aseguruaren indarraldia lehenago bukatzen bada. Aseguruia berritu edo azterketa egin ondoren, saltzeko baimena luzatu egingo da, gehieneko epe osoa hartzeraino.

4. Baimenak baliogabetu egin ahal izango dira ematea ekarri zuten zirkunstantziak desagertzen direlarik, edo eman zen garaian egokitzuz gero hura ukatzeko arrazoiz izango zatekeenik egokitzen delarik.

5. Indarrean dagoen araudiaren ildotik, egokitzat jotzen diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira egokitu litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko. Behin-behineko neurri horiek ez dute arau-hauste izaerarik izango, aplikatzekoa den araudian aurreikusten direnak izango dira eta, edonola ere, ekidin nahi den kaltearekiko proportzionalak.

4. artikulua. Ibilgailua aparkatzeko baldintzak

1. Inolaz ere ezingo da bide publikoa okupatu, edo hartan barrena zirkulatu, ibilgailua saltzeko iragarkia jarrita, baimena eskuratu gabe. Udal baimena ibilgailuaren barruan ongi ikusteko moduan jarrita eduki beharko da.

2. Ibilgailua aparkatzeari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Zirkulazio Araudi Orokorra onetsi zeneko azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua, Hiriko trafikoa eta ibilgailuen aparkalekuak arautu eta kontrolatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen udal ordenantza fiskala eta Lurrazaleko aparkaldi mugatuko zerbitzua (TAO) arautzen duen ordenantza, edo horiek ordeztzen dituzten arauak. Beraz, ibilgailuak behar bezala aparkatuta egon beharko du, eta ezingo da egon zazpi egunetik gora, segidan, bide publikoko leku berean.

5. artikulua. Tasarik ordaindu beharrik eza

Baimena ematen delarik, ez da inongo tasarik ordaindu beharko, Hiriko trafikoa eta ibilgailuen aparkalekuak arautu eta kontrolatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen udal ordenantza fiskalean finkatutako aparkaleku-tasaren ordainketa gorabehera. Hori guztia, horretarako finkatuta dagoen gehieneko aparkaldiaren barruan (zazpi egun segidan).

6. artikulua. Saltzeko baimena eskuratzeko tramiteak

Ibilgailua bide publikoan saltzeko baimena eskuratzeko, eskabidea aurkeztu beharko da Udal Erregistroan, agiri hauek erantsita:

- Ibilgailuaren titularraren nortasun-agiriaren (NAN) kopia.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren eta nahitaezko aseguruaren kopia erkatua.
- Ibilgailuaren azterketa teknikoaren (IAT) ziurtagiria, non ageri den ibilgailuaren aldian aldiko azterketa indarrean dagoela.

Eskabideak ez baditu ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak betetzen, hamar eguneke epea emango zaio interesdunari okerrak konpondu edo baimena izapidetzeko ezinbesteko diren agiriak aurkez ditzan. Agiri horiek aurkezten ez badira, eskabidea arxivatu egingo da, ibilgailuaren titularrak atzera egin duela esan nahiko baitu.

Dokumentazioa aztertu ondoren, eta egiaztatzen delarik eskatzaileak ordainduta dituela udal zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak, Herritarren Segurtasunaren Sailak baimena emango du.

7. artikulua. Ikuskapena eta kontrola

Udaltzaingoko agenteei dagozkie ordenantza honetan xedatutakoa betetzen den ikuskatu eta egiaztatzeko zereginak, udal araudia betetzen dela zaintzearen ardura beren gain hartua duten aldetik. Arau-hauste izan daitezkeen gertakariak azaltzen dituzten aktak jasoko dira ikuskaritza-bisitetan, eta egiten diren salaketen tramitazioa administrazio-prozedura zigortzailearen arabera egingo da.

8. artikulua. Arau-haustek

1. Ordenantza honetan jasotzen diren betebeharrak eta aginduetako zeinahi urratzen delarik, arau-haustetzat joko da. Horrenbestez, bertan biltzen diren arauak ez betetzearen erantzuleak zigortzerik izango da, behar den prozedura zigortzailea izapidetu ondoren. Honela sailkatzen dira arau-haustek: arinak, larriak eta oso larriak.

2. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Urtebeteko epean arau-hauste larri bat baino gehiago egitea, administrazio-bidean eba-
zpen irmoz hala egin dela adierazi bada.

b) Kendu egin da.

c) Merkataritza-establezimenduek ibilgailuak bide publikoan erakusgai jarri eta saltzea.

d) Udaltzainen ikuskatze eta egiaztatze zereginak oztopatzea.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Kendu egin da.

b) Kendu egin da.

c) Urtebeteko epean arau-hauste arin bat baino gehiago egitea, administrazio-bidean eba-
zpen irmoz hala egin dela adierazi bada.

d) Dokumentazio faltua aurkeztea, edo zirkunstantzia eta datuak norberaren mesederako
itxuratzea, ordenantza honetan araututako betebeharrak eta obligazioak saihesteko.

4. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Udal baimenik gabe ibilgailuak bide publikoan erakusgai jarri eta/edo saltzea.

b) Udal baimena iraungita egonik ibilgailuak bide publikoan erakusgai jarri eta/edo saltzea.

c) Ordenantza honetan araututakoaren kontra doazen ekintza edo omisioak oro, larritzat edo
oso larritzat sailkatuta ez badaude.

9. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak

Ekintza edo omisioen erantzule egokitzen diren pertsona fisiko edo juridikoei leporatuko zaizkie arau-haustea, eta orobat egotzi ahal izango zaio baimenaren titularrari ordezkari, laguntzaile, ordezkari edo enplegatuen ekintza eta omisioen ondoriozko erantzukizuna.

Baldin eta arau-hauslea zehazteko egin beharreko ikerkuntza egin ondoren ez badago modurik, hartan esku izan duten hainbat pertsonaren artean, bakoitzaren parte-hartzea zenbatekoa izan den erabakitze, erantzukizuna solidarioa izango da.

10. artikulua. Zigorak

1. Honela zigortuko dira arau-haustea:

- Arau-hauste oso larriak: 1.501,00 eurotik 3.000,00era bitarteko isuna.
- Arau-hauste larriak: 751,00 eurotik 1.500,00era bitarteko isuna.
- Arau-hauste arinak: ohartarazpena eta/edo 750,00 euro arteko isuna.”

2. Zigorak gorabehera, ibilgailua kaletik kendu, eraman eta biltegian gordetzeko agindu ahal izango du Udaltzaingoak, eta, halakoetan, dagokion tasa sortuko da zerbitzu horren ondorioz, ezinbestekoa izango baita hori ordaintzea ibilgailua itzultzekotan. Edonola ere, merkataritza-es-tablezimendu iraunkorrek egiten badute arau-haustea, ordenantza honen 2.a) artikuluan ezarritako debekua urratuz, ibilgailua kendu egingo da kaletik, baldin eta Udaltzaingoak berariaz egindako errekerimenduari uko egiten bazaio eta, hortaz, arau-haustea errepikatzen.

3. Ibilgailua abandonatutzat joko da eskumena duen agintariak bide publikotik kendu eta biltegian gordetzen duenetik bi hilabete baino gehiago igarotzen direlarik. Halakoetan, titularrari galdutako zaio hamabost eguneko epean har dezala ibilgailua biltegitik, eta, hala egin ezean, hiri-hondakin solido gisa tratatuko da.

11. artikulua. Zigorren mailaketa

1. Zigorra gertaeren neurrikoa eta horiei egokitua izango da. Hortaz, irizpide hauek hartuko dira aintzat zigorren mailakatzeko:

- Nahitasunik, errepikatzerik edo berrerortzerik dagoen.
- Bide-segurtasunerako arriskua.
- Hiri-paisaia eragindako nahasmenaren intentsitatea.
- Espazio publikoaren erabilera.

2. Berrerortzetzat joko da urtebeteko epean ordenantza honen kontrako arau-hauste bat baino gehiago egitea, eta ebazpen irmoz halakotzat jotzea. Errepikatzea izango da, aldiz, erantzulea lehendik zigortua izan bada ordenantza honen kontrako arau-hausteengatik, edo ordenantza honen kontrako arau-hausteengatik beste prozedura zigortzailerik bideratzen ari bazaio.

3. Isunak zehazteko orduan, nolana ere, kontuan izango da zigorra ez betetzeak ezin duela izan arau-hauslearentzat hautsitako arauak betetzea baino onuragarriago.

12. artikulua. Arau-haustea eta zigorren preskribitza

Arau-hauste arinak sei hilabeteko epean preskribituko dira, larriak bi urteren buruan eta oso larriak hiru urteren buruan.

Arau-hauste arinengatik jarritako zigorren urtebeteren buruan preskribituko dira, larriengatik jarritakoak bi urteren buruan eta oso larriengatik jarritakoak hiru urteren buruan.

Preskribitze epearen zenbaketa eta etenaldiak administrazio-prozedura erkidea arautzen duten arauetan xedatutakoari jarraiki egingo dira.

13. artikulua. Zigortzeko eskumena

Tokiko Gobernu Batzarrak edo hark ordezeko izendatzen duen organoak izango du zigorrak jartzeko eskumena.

14. artikulua. Zigortzeko prozedura

Prozedura zigortzaileari dagokionez, aplikagarri diren berariazko arauak hartuko dira aintzat, eta, modu subsidiarioan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean edo horiek ordeztzen dituzten araudietan xedatutakoa.

Xedapen gehigarria

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau.